

IZATEA TA BERE ZENTZUA

ORIXE Jaunari,
bide-laguntza baten
esker-ordaintzat.

Lan au eztabaida-jantziz argitara zitekean, eta apika ori zetorkion egokienik, eztabaida baten frutua baita (°); baiña beste bide bati jarraitu diot. Aurrekoan, nere elburura iritxi aurretik, ikutu bear ez nituen aunitz puntu jorratzen jardun nintzan. Orixe jaunak, geienbat, pasaizoan gain-begiratu nituen aueri eldu die. Berak jakingo du zergatik, eta ba-du, nai ezker, ortarako eskubiderik; ni, ordean, berriz ere leengo ariari lotuko natzaio: izatearen mamiari, alegia. Ta azkene-rako, edo bidean egokitzen zaizkidan eran, arrotuko ditut Orixe jaunak esaten dizkidanak.

* * *

Leenik muga dezadan lanaren xedea. Bitan bana ditezke mundua-ren leenen-zuterrak: izatasuna ta esentzia (I). Biok izaki batean elkar-lotzen direnean, jaiotzen da egizko gauzakia (ente real). Biotako bakoitzak zeregin berezia du izakiaren kolkoan; ez da aski esentzia,

(°) Filosofi-saio onen argitara-lekua euskal-ikasleon barne-errebista dugun "Yakin"-en zegoen; baiña bertarako luzeegia gertatu delako, EGAN'era jo dut. Eskerrak zor dizkiet, beraz, aldizkari onen zuzundariari.

Ikus: "Yakin" 9, 15 or.: "Izatearen azterketan", eta Orixe'rena: "Yakin" 10, 67 or.: "Izatea aztertzen".

(1) *Izatasuna, izatea, esistentzia*. Guziok esanai bakarra dute emen; au da, esentziari, gauzakitasunera iristeko, bizkarreratzen zaion *leen gertakizuna*. Au onela ulerturik, ez didazu agian "gure buruko ganbaraz landa ez da izaterik" esango. Ontan konporme gaudela derizkiot. Nik baztertu nuen *zerbait'*a esentzia zen, ta au, metoduz bederen, —nere azterkizuna esistentzia izanik— egin nezakela uste dut. Beraz, zuk diozun ori *oraingoz* onartzen dizut, bestela diotenak ere ba-dire-ta. Ikus: *T. Barth*: "El ser del mundo y sus razones internas..." *Verdad y Vida*, 65 (1959), 28-29 Orr.

Izan eta *izatea* bereizten dizkidazu, nere ontan *izan* egokiago letorkidala adieraziaz-edo. Baiña lan au irazakieri begira egin dudalarik, ta guk *izanean irautea* dugula, *izate* itza erabiliko dizut bereziki.

mundua izan dedin, ezta esententzia ere. Biak ditugu bear-bearrezkoak, biak derriorrezkoak, izaki ditekena errealdadezko mundu ontan kokaku nai badugu. Esistentziak ateratzen du izakia ezerezaren illunbetik: ezerez au uxatzea da esistentziaren eginkizun bakarra. Esentziak, berriz, esistentzi ontan izakiak elkar-bereizi egiten ditu; bera dela bide, esistentzia amaika era berriz agertzen da. Esentzia-esistentziak, biok dira ezerezaren aurkako, ezerezak ez baitu *egoterik*, ez *nunbaitean* izaterik.

Izatea da izakiaren *gertakizun* leenen eta bikaiñena. Esentziari gertakizun au gaiñeratu zaionean, izaten asi egin da, ezerezetik irten da, gauzakien izadira eldu da. Beraz, izaki ditekena ez-baiña benetakoz zerbait dan ontan bi osakai aurki ditzazkegu: izakiaren mamia, sustantzia, den zerbait, eta au errealdadean exer-arazi duen izatasuna. Ez dire, ba, izakiaren bi oiñarri oiek berdiñiak, bakoitzak bere betebearra du.

Nik emen jorratu nai nukena esistentzia da; onegatik, ez dut ezertarako "zerbait"-a arrotuko. Nere lanaren azterkizuna izatasun au izango da: esentziaren leenbiziko *gertakizuna*. Izatea da gugan jaio dan estreñako jazopenik pozgarriena. Bera gabe ez giñan ezer, eta bere bidez gera, geran oro.

Izatea, izatasuna, esistentzia: onatx, apur bat bederen, argitu nai nuken ezkutukia. Zer ote dugu izate au? Esistentziaz esan ote dezakegu ba-dena besterik? (2). Mundua ba-da, gu ba-gera, Jainkoa ere ba-da: zer ote daukagu guk diteken mundu soilletik benetako izatera erakarri ta bertan iraurarazten gaituenik? Izaki mugatuoi zer eman ote digu Jainkoak gure zertasuna edo nortasuna izatean egon dedin? Zer itsatsi zaio gure esentziari bere jaiotunean? Au da jakin nai genuena.

I. IZATEAN ZENTZU BAT.

Saia gaitzen izatea, bere zentzua dugula bide (3), barne-sakone-

(2) "Izate orri zerbaitasuna edo norbaitasuna kentzen ba'diozu, utsa gelditzen da". Emen darabilkidanari egiz ta benetan, ta ez metoduz bakarrik, zerbaita kentzen badiot, ez da ezer. Ta zerbaitari izatea ken badezaiot? "Izateak ez du gairik... doairik, zureak beintzat". Ez nuen, dirudienez, nerabilkien "izatea" bear ainbat esitu; neu naiz errudun. Ez didazu noski gauzakietan, esentzia ez den ta nolabaiteko izakitasuna duen gertakizun bat ba-dugunik ukatuko, ezta gertakizun au *ona*, *egia*koa, ta *zentzuduna* denik ere. Beraz, izateaz ere zerbait aitor dezakegu. Izateak ez du errairik, ontan biok bat gatoz; baiña ez ote du "errairik"?

(3) *Zentzua*, *ikurpena* (?). Zein aukeratu, emen darabilkidan ideia emateko? Erderak "sentido" esaten du: "Esa frase no tiene *sentido*. Un mundo así carece de todo *sentido*". *Zentzua* aukeratu dut nik eta lana-zear ikus dezakezu bere esanaia. Ala ere, ez da nere gogokoa; baiña obeagorik ezean...

neraño ezagutzen. Mundua ba-DA: edozein izakik ba-du *izatea*. Izaki guzietan gertakizun au aurkitzen dugu: errealdadea ba-DA. Izatezko gertakizun ontan murgildua dago errealdade dena. Ala ere, errealdadea ez da *izan* bakarrik, nolatasun berezia du izate onek. Izan ba-da, bai; baiña zerbaiteRAKO da, zerbaiteGATIK da... Izate au ez da, beraz, izan utsa: izatasunak zentzu bat du, izan zentzuduna da.

Izatasunaren zentzuaz ere, arestian izateaz egin ditugun galdera berak egin ditzakegu. Zer da zentzua? Zertan datza bere errealdade apartekoa?

Edozein filosofia zentzudun errealdade bat ba-delakoan ari da, ta ez diteke bestela izan; izan ere, bere lankizuna illuna, ezagutzari itxia, baledi, ez luke filosofiak zeregiñik, alperrikakoak lirake alegin guziak, bere leenengo etsaia errealdadea bera bailitzake. Emen, ba, munduaren zentzua ametitu egiten dugu; postuladu bat da izaki ororen zentzuduntasuna.

Itza zerbaiten adierazle dan bezela, izatasuna izan-aurreko ideia baten mamitzea da. Izaki zentzugabeak esitu egingo lizkioke adimenari ezagutza-bideak, gabetasun onek mundu adigarritik kanpora mugatzen baitu zerkia. Sartre ta beste zenbaitek mundua absurdutzat jo dute: izakiak ez du egi-argitasunik, guzia illuna, egigabekoa da. Baiña zerbaiteirako asmorik duen filosofi batek ez dezake iñola ere izatasuna, nolanaikoa dela, zentzugabetu. Emen ez ditugu bi askabide besterik: edo mundua, beste gabe, zentzudun egiten dugu, edo, arrazoiez oiñarriturik, bere zentzuaren benetakotasuna probatu.

Izan ba-dena, edo ba-ditekena, zerbaiteGATIK, zerbaiteRAKO, ta zerbaiten ARAUZ da. Izan ere, errealdadearen zentzua iru zimendu auen gain jasotzen da: "gatitasuna", "rakotasuna" ta "arauztasuna". Ezertarako ez, ezergatik ez eta ezeren arauz ez dena, ezin liteken izatasuna da, metafisika-esien landa ibiltzea bailitzake: izaki orrek ez luke izango kontrakotasun-legerik, ez askizko (suficiente) arrazoirik, ezta gauzalidaderik ere. Edozerk bere izakitasunari dago-kion iturburu bat bear du; bere jaiotunean, ezerezetik izateraiñoko leizea igarotzeko, *aski* izango duen *bultzada* bat gabe ez diteke ezer izatera etorri. Bultzada izanarazle au bere esentzian bertan edo beste baterenean aurki dezakegu; baiña beti izango da eragilleren bat, askizko irazaille bat. Gauzalidade bat bear-bearrezkoa da beti. Izakia derriorrezkoa edo bearbadazkoa (contingente) izan diteke, eta biotatik kanpora ez dugu beste izakerarik: bat edo bestea, edo ezerez. Izakia zerbaiteGATIK da.

Izatasuna zerbaiteRAKO ere ba-da: elburu-joera batek zuzendu bear ditu edozeren billakakuntzak (devenir). Ezeren arrazoigabe jaioriko izakia bezin ulergaitza izango litzake ezerezerako sortu dena;

biak lirake absurduak. “Ni ez naiz neretzat, ezta iñorentzat ere”, berekiko esan lezaken izakia, iñun ez dagoen kaletik izan ez diteken enparantzara doa. Ezerez Jauna da ori.

Baiña izatearen zentzua bere *arauztasunean* sustraitzen da bereziki. Izatasunaren eta adimen baten ideiaaren arteko erlazio bat daukagu emen. Izate-aurreko ideia batek eratu ditu izatasunaren barneko artuemanak, guziok ez baititezke mailla batekoak izan, ezta izatean edozer izan ere. Izatearen *arauztasunari* darizkio gaiñerako izan-betebearrak, izakia legezkoztatunean izan ta alegindu dedin. *Gatitasuna* aldiz leenengoa bada ere, logikaz izate-*arauztasunari* menpetua dago; orobat, bere neurrian, *arauztasuna rakotasunari* ere.

Edozein izakitasunetan, errealdadezkoa edo ideiazkoa izan, izatearen zentzua iru motatan maillakatu dezakegu: jatorri-zentzua (=gatitasuna), barne-zentzua (=arauztasuna), eta elburu-zentzua (=rakotasuna).

JATORRI-ZENTZUA da izatearen barne-erakuntza zuzentzaillean aurki dezakegun zentzua. Jatorri-zentzuak, metafisika-betekizunak aurrean dituela, “legepetu” egin nai luke errealdadearen leenen unea. Ezerezetik izaterako igaropidea, adimen kreatzaillearen logika-irizpidez, arrazoitzen alegintzen da zentzu au. Jatorri-zentzuak, bada, adimen-oiñarren menpetasun osoan sortu nai du izakia.

Edozein errealdaderen jaiotuneak zentzurik izan dezan, zerbaiteGATIK asi dedilla bearrezkoa da. Izan ere, edozein billakakuntzak bere exer-leku, ta errealdadearen iturburu logiko dan izaki bat eskatzen du.

Baiña jatorri-zentzua ez da *gatitasuna* bakarrik, ba-du geiagorik ere. Au batez ere gauzalidade-jasoñaren aplikazioa da; arek, ordea, ba-dauzka beste zeregiñak ere. Jatorri-zentzua, oso ta benetakoa izan dedin, izatezko “etika” bati menpetu bear zaio, ta ontarako derriorezkoa da *rakotasun-arauztasunei gatitasunak* zor dien puntzionalidadearekin jokatu dezala jatorri-zentzuak. Ez da aski *gatitasunaren* ikurpena(?); geiagorik bear du jatorri-zentzu onek; etorkizunari dagokion aginpetasun ez leenen izate-uneko eragillearen egintza azken jatorruntan batera zuzendu bear du, au da, ez da naikoa jaiotunean zentzudun izatea, *arauztasun-rakotasunek* dituzten bidezko eskabideak ere ase egin bear dira ta auen agindupean jokatu bear du izatearen jatorri-zentzuak. Jaiotunearen izatezko “etika”, izatez ta balioz biri-billago diran barne-zentzu ta elburu-zentzuen morroi izatea da. Jatorrunea, bearrezko izanarren, ez baita bidea baizik: ideia zuzentzaillerako bidea. Onela, ba, jatorriaren zentzua, batez ere, bidetasun ontan datza. Moldatu nai genuen izakitasuna leialki mamitu dedin, derriorezkoa da jatorri-zentzuak jator eta egiz jokatzea.

Jatorri-zentzua, gaiñerako zentzuen zuzter denez, ez da *izan dena* bakarrik, ez da aldiaren galtzen; barne ta elburu-zentzuetan boroborka dabil beti. Jatorri-zentzua izana da; baiña oraindik ere ba-da nola-bait: izakiaren sortunean *asi* bakarrik egin da. Onegatik *gatitasun* au barne ta elburu-zentzuetan bizi da, berak erabaki baitu etorkizunean izakiari ezarriko zaizkion “etika”-legeak: *arauztasuna* ta *rakotasuna*.

Ditezkenen itxaso naasian bat aukeratzen du jatorri-zentzuak, onela izakiari bide jakin bat izendatuaz. Orain ta etorkizuna irakifiarazi ta logikaz eratzen dituen bizizko dinamika baten zentzua da *gatitasunarena*. Beraz, jatorri-zentzuaren esanai berezia etorkizunarekiko morrontza da.

Errealidadearen estrukturari, erakuntzari, jaiotuneak zor dion menpetasun au bide dela, sortunea zentzutu egiten da, ta morrontza onek, balioetan dagokion maillan kokatzen du.

BARNE-ZENTZUA: Jatorruneak, izatearen errealidadezko erakuntza delako, oinbesteko garrantzia badu, areago barne-zentzuak, orainaldi ta geroaren zuzentzaille baita. Zentzuak leenik izaki ta ideia zuzentzaillearen arteko erlazio bat adierazten digu, ta ondoren errealidadearen beraren barne-*arauztasuna*. Osakai ontologikoak, erlazio onen jatortasunez, baliokiro elkar-araberakatu direnean, ba-dugu zentzua. Logikazko araberakuntza au da barne-zentzuaren oinarrria, ta beragabe ez dago inolako barne-zentzurik.

Zentzua bi izakitasun desberdinetan topa dezakegu: billakakuntzan eta aktuan. Leenengo ortan, zentzuak eragille ta egifiaren artue-manak metafisika-oinarriz lotzen ditu. Ta ain da izan ere erlazio auetan metafisika-jokabide auen derriorra ze oiekabe ez dezakete iraun, ez bailukete zentzurik izango. Onegatik, billakuntza burugabekeri bat gerta ez dedin, bear-bearrezkoak dira metafisika esiak. Logikatasun au daukagu jatorri-zentzuan, jaiotunea edozeren leen billakakuntza baita.

Jatorri-zentzuak leen billakakuntza ontan betetzen duen egin-kizuna, barnekoak aktuzko gaietan egiten du. Barne-zentzuak jerarkiz maillakatzen ditu izakiaren errai ta ingurukiak, au ez baita gunea bakarrik, muin inguruduna baizik.

Barne zentzuak zeregin bikoitza du izakiaren jerarkikuntzan: elemenduen sakabanatzea galerazi, ta gaiñera auek elkar-aidetu, izate lanean bat etorri ditezen. Estreñako eginbear ori betetzeko, izatea bidegaltzera zirikatzen duten “tentaldi” denak uxatu egingo ditu; barne-batasuna lortzeko, zentzuak izakiari izatezko jatortasun-gose bat barneratuko dio, bere egizko egin-kizun-bideari jarrai dezaion.

Jatortasun-lei onek, bizizko joera bat emanaz, aidetzen ditu izaki ta izatearen osakai denak.

Oraíña, barne-zentzua, bere aktuzko mamitasuna bide, errealidadearen egizko bizitza da, igaroaldiaren frutu ta etorkizunaren azia. Oraintasunean, aktualidadean, inguruki ajolatsuenak dira leenaldia ta geroa; onegatik, oiek ere baliotasunez dagokien maillara jaso bear ditu barne-zentzuak.

Jatorri-zentzua ezerezaren ta izatearen artean dago zankalatra-ba, ta bere kolkoan jaiotzen da *arauztasuna*. Barne-zentzu au zera dela esan genezake: izate-erakuntza osoan, baliotasun jerarkizko elkar-kontrakotasunaren indar ekilibriuak, denduak, sortu duen *arauztasunezko* bizi-pilpira.

ELBURU-ZENTZUA, batez ere, norabaiterako joeratasuna da, ta bertan finkatzen da “izatezko dialektika” dei genezakena, joeratasun onek erakartzen baitu izakia bere azken barne-osotasunera. Izakia inguratzen duen mundu ditekenezkotik etorkizun jakin bat aukeratzean, esitzen da *rakotasun* au, ta bertatik, aukerakuntza au ezker, izakiak ba-dauka derriorrezko ta esentzizko dan joeratasun jakiña. Zentzu au ere izatearen logika-jokaera bat dugu. Edozein izaki edo izatetan joeratasuna bear-bearrezkoa zaigu, beragabe arrazoi-kontrakotasun illunbera baitoakigu edozer gauza. Izaki ase ta biribil batean ere, aalkizun denak beterik izanarren, *rakotasunak* ba-duke egin-kizunik.

Elburu-zentzuak, oraíñaldiaren barne-erakuntzari dagokion mugabarruan, izatea etorkizun jakin batera bultzatzen du. Au ez da barnezentzuaren jatortasunari erantzutea besterik. *Arauztasunak*, geroaren bideak argitu ta joeratasuna, *rakotasuna*, sortzen du, izakia ezerezko absurduan murgil ez dedin.

Rakotasuna bikaiñagoa da —izatez ez bada ere, bai balioz— barnezentzua baiño, au bestearen menpeko ta esaneko baita. Joeratasunak zuzentzen du bere baliozko gotorretik izate dena. Ala ere, izaki ba-koizkian, konkretuan, barne-zentzuak aukeratzen du berari dagokion joeratasuna: ditezkenetatik oraíñaldiak autatzen du bere *rakotasuna*, ta bere “borondatez” autetsi ere.

Izate-zentzua iru ataletan-edo banatzeak ez du noski izatean kontrako iru zentzu ditugunik adierazi nai, izate-zentzua bat bakarra baita; baiña gure adimenaren analisi-jokabideak, onela bereiztera beartzen gaitu. Zentzua bat da, ta joera ta zeregin bakarrekoa.

Joeratasuna izate-kanpotik deika dagoen zerbait ez-ezik, izate-barnean bizi dan elburu-gose bat ere ba-da: barneko dynamis batek darabilki izatea. Jomugatasunaz jardutean, berealaxe izate-baitazkoa ez bailitz ari gera, ta au ez da ola. *Rakotasunak* bi ikusalde ditu:

jarraibidearen deia, ta batez ere joeratasuna, dei orri ematen diogun erantzuna. *Rakotasuna* da izatearen txokorik barnetar ta ezkutuen; errealidadeak berak "nai" du elburua. Jomugatasunak, azken zeregiña izanik, beragan biltzen ditu izatearen bizi ta egiketa guziak. *Rakotasuna* ez da izateari ezartzen diogun jazkia; ori baiño askozaz geiago da: izatea bere osotasun-gose ta egarri egifiik; azken balioa denaren izatezko "dinamika eskale" bat da joeratasuna.

Onelatsu labur diteke elburu-zentzua: idealezko jomuga ta errealidadearen arteko ezin-elkartuak itsasten dion eta jomuga-goseak barne-jatortasuna iristeko, bear duen billakakuntza-indarra.

Iru auek ditugu, ba, errealidadearen zentzuak: jatorrizkoa edo *gafitasuna*, barnekoa edo *arauztasuna*, ta elburuzkoa edo *rakotasuna*. Denok dira bat, irurok elkaturik dabiltz; bakoitzak beste biak bear ditu ta eurakabe ez diteke izan. Ez da zentzu banaturik; ideia zuzentzaillearen argi-printza bakarrak izate-borobillean pizten dituen iru diztira baiño ez dira iru zentzu-atal oiek.

Irurok batzen dituen zerbait ba-da izate-zentzuan. Errealidadearen iru unetxo dira atalezko zentzu oiek; onela zeindu dezakegu, beraz, zentzua: errealidade osoaren gai, une ta indarrak azken balioraiño logikazko aidetasun osoan eragitea. Zentzua barne-aidetasun au da, ta onen legepean laukoitz au zuzentzea: non-esse —in fieri esse— esse —ad finem esse.

Baiña, ala ere, ez dira lau oiek zentzua ematen dutenak, oien "lagunartekotasun" logikoa baiño. Koillare baten antzera, zentzua ez da ale denak alboratzea, ale guziok, ari baten bidez, elkar-lotzea bai-zik. Orainaldia oinpeko dela, iturburura ta azken elburura logikoki iristea da zentzua.

II. ZENTZUAREN AZKEN ZERGATIA.

Izakia, bere eragillearengandik jaio danetik, ba-da. Izatasun onek ez aal du bere baitan izateko arrazoirik? Bearbadazko izaki batean esentzia ez da izatearen iturburu; onegatik, eragilleak izakiari izate ori iraunaraziko duen ta esentzia ez dan izate-eusle bat eman dio. Esentzia ez da barneko errealidade iraunazle ori. Izatasunean bertan aurkitu bear da izate onen barne-arrazoia. Noizbait etzan izakia, au da, esentzi soilla zan; baiña orain ba-da. Esentziak ba-du zerbait berririk. Berritasun au izatea da: edozerk izan dezaken gertakizun aundien ta leenengoena. Ta onatx gure galdera: zein barne-arrazoi du izakiak gertakizun ori *egiten* duenik? Zer dela-ta, irauten du bere ortan gertakizun orrek? Auxe jakitea da gure emengo elburua.

Izatearen zentzua zer dan ikusten saiatu gera. Ikus dezagun orain, sakonago, aipaturiko iru zentzu oien barne-arrazoia. Arrazoi au lagun

dugula, agian izateaz egin ditugun galdera oiek erantzutera urreratu gaitezke.

Zentzuan indartasunak duen oinarritasuna aitatu dut. Joeratasuna ez da kanpotiko zuzenbide bat, uso mandadari-senaren antzera, izakia jatortasun bidean daramakien dynamis bat baiño. Izatea "gose-arazten" duen izakitasun bat da zentzua: osotasun-irrika bat. Azken elburuak opaltzen dion asekuntzarako deia sumatzen du izateak, ta oiu oni erantzuteko, sortarazleak eman dion barneko izate-gose bat da zentzua.

Izatea zerbaiteRAKO da; errealdadea elbururantzua dabil, egin-kizun baten morrontzarako jaioa da. Izakiaren milla osakai ta izatezko une oiek baliotu egin bear dira, ta mailakaketa ontarako, izateak bere bideari logikaz jarrai dezaion, ba-du izateak zerbaite eragillerik bere kolkoan, jerarkitzaille dan errealdade bat. Barne-jerarki au sortuko duena ez diteke ideia-balio bat soillik izan, ez bailitzake, izate aldetik bikaiño denagan, gauzalidadez eragiteko lain. Izatearen zerbaite barnekorik bear dugu: izatea zentzuz indar-bultzatuko duen barneko zerki bat.

Balioak maillakatuaz, osakaiak elbururantzuko dituen errealdaderen bat bear du edozein izakitasunek. Jokabide guziaren iturburu dan izakera-eragille bat daukagu materizko izakietan. Izatean ere berebat: barne-elbururanzgillea, au da, osakaiak jerarkituko dituen zentzu bat bear da.

Diteketasunak ondotik bear du ditekenaren osakai ta uneen zentzuketana. Areago oraindik: esistentziaren diteketasuna bera ere, osorik eta zuzter-zuzterretik, osakai guzien zentzuketarenak neurtzen du. Beraz, zentzuaren betekizuna zuzterrekoa ta leenen-leenena da.

Ta nundik dator zentzuketana? Nork elbururantzten du izatea? Ez goaz emen kreatzaillearen atzetik; oraingoz ezezagun zaigun barneki orren billa gabiltz. Zergatik da izatea zentzudun; zer dela-ta, "nai" bere jomuga? Zergatik *aukeratu* du izateak zerbaite-rako, zerbaiteen arauz, ta zerbaitegatik izatea? Zerk jaiotarazi ta iraunarazten dio izate-zentzuari, izate-logika saretuaz?

Bearbadazko izakietan izatea bestegandik badatorkigu, ala ere, geroztik geugan dugu doe, arrazoi eragille, ori. Geure barneari darion iturritik edaten du gure izateak zentzua.

Galdera auen askabideak izatearen zuzter ondo-ondoraiño garamazki; onegatik, arestian egin dugun azterketak ematen digun gairirik azkenena dasta dezagun.

Jatorri-zentzuak *zerbaitegatik-izatea* esan nai du. Baiña zentzu onen berezitasuna ez dago irurotako edozein osakaitan. *Zerbaite* a ta *izatea* bearrezkoak ditugu, jatorri-zentzurik izan dedin; baiña ez dira zentzua bera, zentzu-aurrekoak baiño.

Izan ere, *izatea* bera, esistentzia, balioz kaskarragoa da zentzua bera baiño, ta berebat *zerbait'a* ere. Onela, ba, auek ez dezakete zentzua sortu; izan dedin, ingurukera bat sor dezakete bakarrik. Onegatik, zentzuak *izate* ta *zerbait* bakoitza lokarrituko duen logika-era bat aukeratzen du. Lokarri au *gatia* da.

Jatorri-zentzuaren zertasuna izatearen leenen uneko *gatitasun* ontan dugula, bere zuzter ta arrazoa argitaratzeko, ez daukagu berori aztertu besterik. Argi ageri denez, *izate-zerbait'*ak elkartzen dituen gauzalidarezko metafisika-oiñarria da *gatitasuna*. Izateak bearrezkoa duen leenen “etika” da au. Jatorri-zentzuaren zuzterrondoa, *izatea* ta *zerbait'a* eragilletasunez korapillatzen dituen *egitea* da. *Gatitasun* au mugatuaz, zentzua onela zeindu diteke: jatorruneko bi osakaiak, derriorez ta logikoki, lokarritzen dituen dynamis egille ta kreatzaillea da jatorri-zentzua.

Gatitasunaren jasoifia dynamis ori da; berak bakarrik argi dezake bi osakaien arteko bizizko elkartasun eta elkar-eragilletasuna. Izatea bera ere izan aal dedin, dynamis onek diteketu ta sortzen du eragille ta egiñaren arteko lokarria. Diteketu egiten du: gauzalidare-oiñarriaren egiztatzea —dynamis batengandik bakarrik jaio ditekenez—, beragabe *zerbait* eragilleak ez bailuke *izatea* erneko. *Gatitasuna* sortu ere egiten du, au dynamis baten erraietan ernetzen dan jatorri-zentzuaren indar-zuzentzaille bat baita.

Dynamis onen aldetik jatorri-zentzua ta gaiñerakoak berdiñak dira; baiña indar onen zeregin apartekoak bereizten diñu elkarrengandik. Barne-zentzuak barneko osakaiak zentzutzen ditu, ta elburu-zentzuak joeratasunez jazten; jatorrizkoak, berriz, gaike oiei izateko zegaiti bat ematen die.

Barne-zentzuan bi ikusalde ditugu; ideia zuzentzaille ta errealdade arteko artuemanak, eta irizpide zuzentzaillea osakaietan marmitzea. Leenengoa jatorrunea-zear sortzen da, *gatitasuna* du sortarazle. Ideia zuzentzaillearekiko erlazio onek, jatorri-zentzuan leenen betebearra du; baiña barne-zentzuan ba-da beste eginbear bikaiña-gorik: izatezko gaikeen zentzuzko erakuntza.

Barne-zentzua onelatsu zeindu diteke: oraiñaldiko gaike ta osakaiak baliozko mailla ezberdiñetan, ideia zuzentzaillearen araura, jerarkitzen dituen dynamis ordenatzaillea.

Barne-zentzuak, *gatitasunaren* bidez datorcion erakuntza medio, ideia zuzentzaillearekiko menpekotasun bat dakarki. *Gatitasunak* mugatzen ditu izatearen gaikeak jatortasun-“etikaz”. Izatea ez diteke nolanai eratu; leenen ideiare arauz *izan bear* du. Ditezkenetatik joera jakin bat autatu den ezkeru, izatek ez du eginbear ori besterik: jatortasun-bidear iekin bear dio.

Baiña jatortasun-lan onek jerarkikuntza ta gaikeen elkar-laguntza

eskutzen ditu. Osakai denak elkatasun-indar batek eragin bear ditu, bakoitzak dagokion jerarki-mailla gorde dezan, eta ingurukiek muin-
kia bazter ez dezaten. Emen ere ba-da, ba, dynamis bat, oraingoan
osakaien zuzentzaille bada ere. Dynamis ontatik jaio da *arauztasuna*,
barne-zentzua.

Barne-zentzuak billatzera beartzen gaituen jatorritasuna, nork-bere
elburua lortzean osatzen da. Izatezko osotasun baten barne-egarrria
da joeratasuna. Onen bidez iristen dute beren asekuntza ta azken
zentzua izatearen egite ta errealidadeak.

Izakiari dagokion baliozko jomugaren egarrria da *rakotasuna*. Jo-
muga au barnekoa edo kanpokoia izan diteke. Leenengo ori derri-
orrezko izakian gertatzen da; bigarrena bearbadazkoan. Dena dela,
bietan daukagu indar-joeratasun bat, bearrezko izakian errealidade
ta jomuga identidadeak ez baitu osotasun-guraria iltzen. Izakiak beti
“nai” du bere jomuga, ta au da izan ere joeratasuna.

Elburu-zentzua, ba, zera izango da: bere baliozko jomugara, logi-
koki ta derriorrez, izaki-erakuntza zuzentzen duen dynamis bat. Bai-
ña dynamis au ez da kanpokoia, barnekorra baizik; *rakotasuna* ez da
eramana izatea, *iritxi nai izatea* baiño. Jomugak ez du erakartzen
izatea, onek berekaxa billatzen baizik.

Iru zentzuotan ba-dugu guziona den zerbait: osakai ta izate-uneak
zentzu batean elkartzen dituen indarra. Indartasun au da, beraz, zen-
tzuaren muiña; zentzu bakoitzean izan ditzazken zeregiñak ez dute
ajola aundirik.

Eldu gera zerbaitetara. Ona gure leenen aurkikundea: IZATE-
ZENTZUAREN ZUZTERRA DYNAMIS BAT DA. Izakian
izate-zentzua sortarazi ta iraunarazten duen barne-iturburua indar-
tasun bat da.

III. ZENTZUTIK IZATERA.

Ontara ezkerro, azken atalean gera. Izate-zentzuaren barne-arra-
zoia ikusi dugu, ta orain izatera bertara zuzendu bear ditugu gure
pausoak. Ikus dezagun zentzuare nanalisi onek izateazaz ezer esan
dezaiguken.

Izatea errealidadera dedin, derriorrezkoa da “izate-inguru” bat,
au da, bere, izakitasuna izangarri izan dedilla. Edozein izakitan di-
teketasun au da leenena izaterako bidean: leenen izan *diteke*, ta gero
da. Baiña diteketasun au, “izate-inguru” egoki bat sortzen duena
zentzua da, berak batzen baititu diteketasun ortan arrazoikiro izana-
raziko den orren une ta osakiaik.

Izatera bidean, ba, leenengotasuna zentzuarena da, ta ez aldizkoa
bakarrik, baita baliozkoa ere. Zentzua ezagutzazkoa izanik, baias

dezakegu ezagutzaren aintzindaritzea: balioz ezagutza da leenen, gero izatea; ta ez diteketasunean soillik, baita errealidade-munduan ere, izan ere izaki oro bikaintasun gaillenaren gose direnez, leenago maite dute zentzua, izatea bera baiño, ezagutza baitugu baliorik biribillena.

Erabat simplea, bakuna, dan errealidadean leen-gaiak osatzen du izakia, leenenki onen izaki osoa egiten eta biribiltzen baitu, ta atzetik etor lekiokena gure adimen-lankerarentzat bakarrik izan liteke berria. Izan ere bigarren egite batean jaio ditekunik balu, ez litzake izakia benetan simplea izango. Izatea, berriz, egiz da simplea, ez du ifiolazko atalik, errealidadearen gertakizun guziz leenena baitugu; baiña gertakizun au zentzuduna da. Zentzua, ordea, izatea bera baiño leenagoko ta bikaiñaagoa da; au onela dela, zillegi zaigu izatea ta bere zentzua bat direla aitortzea.

Zentzua, beraz, izate-gertakizuna da, ta bertan daude izatearen ikusalde denak, ta aurrez-aurreko begirakada batean zentzua ikusiko bagenu, izatearen errealidade osoa jakingo genuke.

Oiñarritu ditugun bi premisa auek egiak badira: ZENTZUA IN-DARREZKOA DA ta IZATEA ZENTZUA DA. Auei darien ondorea auxe dugu: IZATEA DYNAMIS BAT DA, ezerezetik igesi ta azken bikaintasunaren atzetik dabillen indar bat.

Emen esan diren zenbait gauzak zimentarri sendoagoak bearko dituzte agian. Baiña ez ote dugu ezer iritxi? Baietz uste dut: leen baiño gertuago daukagu izatea.

Izatearen ideia nundik datorkigun erabaki gabe —ba-dakigu arazo au filosofian aspalditik eztabaidakizuna dena—, izatearen barne-sakonera zerbait urreratu ote geran nago. Leenengo orrialdeetan geneukan izateazko jakintza ideia bat zan, ezagutza bat. Orain izatea aidetasun aundi ta urbillez dakigu. Ba-dakigu izatea bizizkoa duguna, ta bizitza, gere leenen barne-taupada denez, gertuago ta jakingarriago zaigu izataearen ideia larrugorria baiño. Jakinduriak ez du ezagutu soillik egiten, dastatu ere egiten du, ta nik jakinduri ontara urbildu gerala esango nuke. Beraz, zerbait egin dugu.

INTXAUSTI'TAR JOSEBA A.

—Arantzazu'koa—

